

IKASTETXEAREN AGIRIA

Oiongo Ramiro de Maeztuko Ikastetxearen irakasleok eskolaren hezkuntza hobekuntzarekiko konpromezua hartzen du. Gurea hezkuntza errealitate konplexua dela jakinik eta hobetze premia aintzakotzat hartuz, hurrengo hobekuntzak eta aldaketak proposatzen ditugu:

- Gure ikasleokari hoberen egokitzen zaion berrikuntza metodologikoak egitea: metodologia aktibo eta inklusibora bideratua, kooperazioa oinarrian izanik ikasleen irteera profila konpetente bat lortzeko gai dena: pertsona zintzo, herritar ona eta profesional aditua lortuko duena hain zuzen ere.
- Ebaluazio mota aldatzea kuantitatibotik kualitatibora, prozesua ezezik lortutako onura maila ere baloratuko duena, autoebaluazioa sustatuz eta une oro helburuen jabe izanik.
- Hezkuntza emozionala modu kontzientean lantzea. Gai honen inguruan dagoen kezka handia da, izan ere, kontutan ez hartzeko edota merezi duen garrantzia ez emateko joera dago, hezkidetzarekin gertatzen den bezala.
- Espazioak, patioak zein gelak zaindu behar dira. Denok sartzeko gaitasuna ahalbidetuz handiak eta irekiak behar dute izan, nahas gaituzen, eta lehiakortasunaren ordean, jolas kooperatiboa bideratzeko gai izanik. Modu hezkidetzazkoan eta inklusiboan elkar eragiteko aukerak emanez, partaidetza eta pertenezia sentimendua garatu dadin.
- Talde lana bultzatzea, inplikazio maila handiko eta eskolaren errealitatea alde aurretik ezagutzen duen irakasle konprometituarekin. Horretarako, irakasleak finkatzeko aukera oso garrantzitsua da, lantaldearekin konpromezua hartu, bere lana garatu eta proiektuari jarraipena eman ahal izateko.
- Gure eskola familia eta herrira zabaltzea.

Hobekuntza eta aldaketa hauek lortzeko hasierako baldintza batzuk eman behar dira:

- Hezkuntza proiektu indartsu bat behar da, etapa desberdinen artean koherentziaduna eta argia. Irakasleok zein familiek ezagutu eta errespetatuko dutena, non irakasle zein familien artean expektatibak partekatuko diren eta ildo bera jarraituko den.
- Ebaluazioari dagokionez, ebaluazio kuantitatiboak baztertu behar dira.
- Instalakuntza eta espazio egokiak.
- Irakaslearen egonkortasuna, formakuntza, inplikazioa eta konpromezua. Talde lanaren sustapena.
- Familien eta herriaren babesa eta irakaslearen profesionaltasunean konfidantza izatea, parte hartzean mugak ezagutuz. Familien partaidetza esku-hartzearen limiteak ezagutuz.
- Lan baldintza egokiak, irakasleok lan-karga horren handia ez izatea (erratioa, baliabide materialak eta pertsonalak).

Baldintza eta aldaketa hauek gerta daitezkeen irakasleok ondorengo ekarpenak bultzatzeko konpromezua hartzen dugu:

- Hezkuntza Proiektuan inplikatzeko, formakuntza jaso eta gure artean formakuntza hori zabaltzeko, zein lan taldean aritzeko eta partekatzeko konpromezua hartzen dugu.
- Familiei eta herriari eskola irekitzeko konpromezua hartzen dugu, komunikazio ona egon dadin.
- Ikasleok, familia, zein lankideekin errespetuz jokatzeko konpromezua hartzen dugu, eskolan harrera eta elkarbizitza egokia izan dezaten eta izan dadin, beharrezkoak diren neurriak eta borondatea agertuz.

Ezinbestekoa ikusten dugu ere beste aktoreek bere ekarpenak egitea:

GE

- Irakaslearen babesa eta laguntza.
- Proiektuak ulertzeko eta partekatzeko laguntza. Ikuspegi eta espektatiba baikorrak sortu familien artean.

IKASLEAK

- Bere irtitzia ematea.
- Proiektuetan eta eskolako elkarbizitzako erabakietan parte hartzea.

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- Inguru honetako eskolak bere berezitasunengaitik kontutan izatea eta bereizketa positiboa egitea.
- Proiektua aurrera eramateko ahalmena eta konpromezua duen irakasleok finkatzeko aukera izatea.
- Lan baldintzak hobetzea.
- Azpiegiturak egokitzeko laguntzak.
- Aktetan ebaluazio kuantitatiboari alternatiba bilatzea.

